

## **BALIOA**

Balore kuantitatiboa: neurgarria izango da, hala nola unitate neurgarriak (prezioa, abiadura, ...)

Balore kualitatiboa: bezeroak produktuarekiko duen ikuspegian oinarritzen da.

Zein dira gure produktuaren balioak?

1. **Nobedadea:** Guztiz gorrak diren pertsonen, orain arte ez dute audifono batzuen bidez kanpoko edozer entzuteko aukerarik izan, beraz, gure proiektu honen bidez entzuteko aukera izango lukete. Orain arte, entzuteko zailtasunak dituzten pertsonentzat egin izan dira pinganilloak, baina inoiz ez pertsona gorrentzat. Gu hemen gaude hau aldatzeko eta gorrei entzuteko eskubidea emateko, ikuspegi sozialetik begiratuta. Beraien behar horiek asetzeko aukera ikusi dugu, hau da, aurrez existitzen ez zen beharrizan bat asetzeko aukera paregabea. Audifono hauek berrikuntza iraultzailea suposatzen dute, pertsona gorrei lehen aldiz kanpoko soinuak esperimendatzeko gaitasuna eskaintzen baitiegu bibrazio batzuei esker.
2. **Prestazioa:** Teknologiaren garapenari esker, ezgaitasunarekin jaio diren pertsonen, zehazki, gorra direnei, entzuteko aukera berri bat emango genieke gure produktu berri honekin. Teknologia aurreratuak kalitatezko audio-esperientzia bermatzen du, banakako entzumen-lehentasunetara egokitua. Beste pertsona guztiek entzuten dituzten soinu, hots eta zaratan entzungo dituzte, musika ere entzuteko ahalmena izanik. Teknologia honi esker, beren desabantailarik handiena gainditu ahal izango dute: ezertxo ere ez.
3. **Pertsonalizazioa:** Pertsonalizazioari dagokionez, gorra diren pertsonen zuzendutako produktua izango da, hauek baitira produktu honen kontsumizioa egingo dutenak. Gure audifonoak erabiltzaile bakoitzaren entzumen-premia konkretuara egokitzeko diseinatuta daude; kontuan hartu behar delako pertsona guztiak ez garela berdinak eta bakoitzak behar ezberdinak ditugula. Honen kasuan ere, pertsona bakoitzaren belarriko beharrak berdinak ez direnez, pertsonalizatu egingo ditugu.
4. **Lana erraztea:** Gure bezeroei lana erraztu nahi diegunez, hainbat erraztasun eskaini nahiko geniezke. Esaterako, gure audifono espezializatuak erosiz gero, beharrezkoak dituen elementu guztiak kaxan sartuta etorriko dira, hala nola, kargadorea, entxufe, produktuari buruzko informazio guztia eta bolumena aukeratzeko mandoa.
5. **Diseinua:** Audifonoak, txikiak izango dira, belarrian sartzekoak. Hala, erosotasuna emango diegu gure bezeroei, kasko modukoak izan ezker, handiagoak izanik, deserosoagoak edota molestia eragin dezaketeelako.

Estetikarekin jarraituz, hiru koloretako audifonoak sortuko ditugu, haragi kolorekoak (txikiak izan arren diskretuagoak izatea nahi izan ezker, helburua lortu ahal izateko), beltzak, bai eta zuriak ere.

6. **Marka / Statusa:** Gure audifonoak marka ezagun batekin ez lotzea erabaki dugu, prezio eskuragarriak eta pertsona gorren beharretara primeran egokitzen den produktu bat sortzeko askatasun handiagoa bermatzeko, ezarritako marka baten murrizketarik gabe.
7. **Prezioa:** 450 euroko prezioa izango du, kontuan izanik gaur egun, famili askok zailtasun ekonomikoak dituztela bestelako audifonoen prezioak ordaintzeko (adibidez, 1200 eurokoak). Bezeroek ordaintzeko modu ezberdinak izango dituzte (momentuan, hilabatero kuota bat ordainduz...).
8. **Arriskua murriztea:** Gure produktuak gizarte-isolamenduaren arriskua murrizten laguntzen du, entzumen espezializatua ematean, pertsona gorrei gizarte-inguruneetan entzumen esperientziez gozatzeko aukera ematen baitiegu.
9. **Eskuragarritasuna:** Soldata duin bat duten guztiek eskuratu dezakete gure produktua, prezioa ez delako batere altua audifonoen sailkapenari dagokionez. Hau da, famili guztiek egingo dute saiakera 450 euro ordaintzeko, trukean kide gorrari entzuteko aukera eskaintzen baitzaio.
10. **Erabilerraztasuna:** Gure produktuak erraztasuna eskaintzen du, eransteke erosoak baitira. Pinganilo formatokoak izango dira, ez kasko formatokoak; beraz, edozein lekutara eramateko errazagoa da, leku oso gutxi okupatzen dute eta ez du atentziorik deitzen. Gainera, haragi koloreko pinganiloak erosiz gero, asko diximulatzen dira.